

Irurtzunen, bi mila eta bederatziko uztailaren hamaseian, arratsaldeko zazpiak direnean, Ezohiko Bilkura egitearren Irurtzango Udaleko Udalbatza, legeak agintzen duen moduan deituta, Batzar-gelan elkartu da Juan Jose Iriarte Vitoria alkate-lehendakaria buru dela. Bertan izan dira ondoren aipatzen diren zinegotziak:

Francisco Goicoechea Arbizu
Jose Javier Recalde Maestre
Saray Ongay Garcia
Jose Luis Viñas Estudillo
Xabier Unanua Goicoechea
Jose Peinado Cuesta
Luis Enrique de la Calle Moreno
Maria Nieves Uterga Juango
Eduardo Murugarren Frances
Francisca Arruabarrena Quintana

Eta idazkaria naizen hau, Santos Iragui Hualde.

AURREKO BILKURAREN AKTA ONETSI

Bilkurari hasiera emanda, udalburuak deialdiarekin batera banatu den 2009ko ekainaren 2an egindako Bilkuraren Aktari zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion galdetu du. Oharririk egin ez zaionez, aho batez onartu da.

ALKATETZAK HARTUTAKO ERABAKIEN IRAKURKETA

2009ko maiatzaren 29az geroztik Alkatezako eman dituen Ebazpenak irakurri dira eta, honenbestez, zinegotziak jakinaren gainean daude.

2007ko KONTUAK

2007. urteko Kontu Orokorrei buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, halaber, Kontuen Batzorde Bereziak 2009ko uztailaren 13an egindako bileran onartutako proposamena aztertuta, 2007. urteko Kontu Orokorra onartzea erabaki da aho batez.

HILERRIKO HORMA HILOBIEN EMAKIDA

Hilerriko horma-hilobi bat emateari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta Ogasun, Industria, Langileak eta Barne

Eraentza Batzordeak 2009ko uztailaren 13an egindako bilkuran onartutako proposamenarekin, aho batez onartu da hilerriko 115. zenbakia duen horma-hilobia Maria Nieves Veces Gutierrez esleitzea.

ENPLEGURAKO LAGUNTZAK ESKATZEA

Nafarroako Gobernuak krisiari aurre egiteko hartutako neurrien barnean (1926/2009 Ebazpena, maiatzaren 27koa, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari-gerenteak emana) ororen intereseko eta interes sozialeko lanak egin eta zerbitzuak emateko langabetuak kontratatzeko laguntzak Nafarroako Gobernuari eskatzeari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, halaber, Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2009ko uztailaren 13 egindako bilkuran onartutako proposamena aztertuta, honako hau erabaki da aho batez:

1.- "Lorategiak eta parkeak hobetzeko eta horien mantentze-lana egiteko proiektua" onartzea.

2.- Nafarroako Enplegu Zerbitzuari "Lorategiak eta parkeak hobetzeko eta horien mantentze-lana egiteko proiektua" izenekoari dagokion diru-laguntza eskatzea.

BATZORDEEN INFORMAZIOA

Ez dago besterik.

GALDE-ESKEAK

Murugarren jaunak galdetu du ez ote litzatekeen egokiagoa izanen herriko kaleetan paratzen ari diren "Stop" seinaleak baino "Eman bidea" seinaleak paratzea.

Iriarte jaunak proposamena aztertuko duela esan du, nahiz eta seinaleak paratzen dituzten enpresek oso irizpide argiak dituzten bata edo bestea paratzeko.

Aztergai gehiagorik ez dagoela, eta arratsaldeko zazpiak eta hamabost minutu direnean, udalburuak bilkura amaitutzat jo du. Idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren Egiaztapena egiten dut.